

UDABERRIKO BARNE TXAPELKETA

SASKIBALOIA 3X3

JOKOAREN ARAUDIA

1. **Espazioa:** Saski bakar batean jokatu da.
2. **Taldearen osaketa:** Taldeak gutxienez hiru eta gehienez bost jokalariz osatuta egongo dira.
3. **Aldaketak:** Momentu oro taldeko hiru jokalarik jokatu dute. Nahi beste aldaketa egin daitezke, beti ere, jokoa etenda dagoenean.
4. **Txapelketaren puntuazioa:** Irabazitako partidak puntu bat balioko du eta galdutakoak zero. Ez da berdinketarik egongo.
5. **Partiduaren puntuazioa:** Saskiratze bakoitzak puntu bat balioko du, baldin eta hiruko marrik haratago saskiratutakoa ez bada. Kasu honetan bi puntu balioko ditu.
6. **Partiduaren irabazlea:** Partiduaren garaileak bi set irabazi beharko ditu. Set bat irabazteko gutxienez bi puntuko aldea lortu beharko da. Lehenengo bi set-ak 15 puntura jokatu dira. Talde bakoitzak set bana irabaziko balitu, hirugarren set-a 11 puntura jokatu litzateke.
7. **Partiduaren hasiera:** Talde bakoitzak jaurtiketa libre bana botako du eta saskiratzen duen lehenengo taldeak izango du baloiaren lehenengo jabetza.
8. **Partiduaren dinamika:**
 - 8.1. Baloiaren jabetza aldaketa ematen denean (defentsako errebote edo lapurtutako baloi bakoitzaren ondoren) baloia hiruko marra baino haratago irten beharko da. Aipatutako marrik atzera ateratzen ez bada eta saskiratzea lortzen bada, sartutako puntuak eta baloiaren jabetza aurkariarentzako izango dira.
 - 8.2. Saskiratze bakoitzaren ondoren baloia jabetzaz aldatuko da. Jokoa martxan jartzeko defentsan dagoen taldeak erasotzaileari pasa beharko dio baloia hiruko marrik haratago.
 - 8.3. Baloia zelaitik kanpora irteten denean alboko marrik jarriko da jokoa.
 - 8.4. Bi jokalarik aldi berean hartzen badute baloia "borroka" izango da eta defenditzen dabilen taldearentzako izango da jabetza.
9. **Epailea:** Ez da epailerik egongo, beraz, faltak norberak adieraziko ditu.
10. **Faltak:** Faltak beti alboko marrik aterako dira. Talde batek bost falta egiten dituenean jaurtiketa libre batekin zigortu zaio. Aurkariak jaurtiketa librea sartzen badu, baloiaren jabetza aldatuko da, baina, sartuko ez balu jaurtiketa egin duen taldeak jarraituko luke baloiaren jabetzarekin.
11. **Eraitza:** Partiduaren eraitza talde irabazleak kiroldegiko harreran apuntatu beharko du, baloiak itzultzearekin batera.

UDABERRIKO BARNE TXAPELKETA

SASKIBALOIA 3X3

TXAPELKETAREN ANTOLAKETA

- Txapelketa ligaxka eran jokatuko da, partidu bakarrera eta lehenengo bi sailkatuak finala jokatuko dute.
- Finala partidu bakarrera jokatuko da eta irabazlea, txapelketako irabazlea izango da.
- Partidu guztiak Eskoriatzako Manuel Muñoz Kiroldegian jokatuko dira
- Baloiak Kiroldegiko harreraren eskatu behar dira eta amaitzean, bertara itzuli.

SARIAK

- Txapelketako irabazleak saria eskuratuko du:
 - Talde irabazlearentzat 30€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo da:
 - Forum Sport kirol dendan erosketa bale bana.
 - Kirol Zerbitzuko ekintzetan deskontua.
 - Afari eder bat.

Oharrak:

- Saria ez da inoiz dirutan emango.
- Saria pertsonalak eta trukeezinak dira
- Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria (5 pertsona gehienez).
- Talde kirolean, partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.
- Saria ikasturtean bertan erabili beharko da eta ez da hurrengo ikasturte batera gordeko.